

## Nafar hizkuntza

euskera@diariodenavarra.es

Leire Urbeltz, *Itzalpetik* albumarentzat egin duen ilustrazio batekin. BUXENS

Leire Urbeltz ilustratzaile iruñearrak 'Itzalpetik' album ilustratua aurkeztu du gaur Donostian, Yolanda Arrieta idazlearekin sortutakoa

## Etorkizuneko sormena

NEREA ALEJOS Iruñea

**Z**ER gertatuko litzateke gaur egun elektrizitate-rik gabe biziko bagina? Nola moldatuko ginateke? Hau da *Itzalpetik* album ilustratuaren abiapuntua, Yolanda Arrieta idazle bizkaitarrak eta Leire Urbeltz ilustratzaile iruñearrak elkarrekin burutu duten bigarren liburua. Biak Galtzagorri elkarteak kideak dira eta ingurunearekiko orekari erreparatu diote. "Istorioa bion artean adostu dugu", dio Urbeltzek. Liburuaren protagonistak bi neba-arreba gazte dira: Amini eta Manara. Bereira hiria ilunpean geratu da eta jendea zoroen pare dabil nora jo ez dakitela. "Osotasun baten parte gara, ama luraren zati bat, naturaren atal bat. Horregatik, beiraiekin garatu nahi dugu, beiraiek zainduz geure izatea ere zaintzen dugula". Horrela dio albumaren ideia nagusia. Egilea eta ilustratzailea ia bi urte elkarlanean luzatu dira. "Normalean, joera da ilustratzaileak testua jasotzea eta horren gainean lana egitea", azaltzen du Leire Urbeltzek. Bere kasuan, Iruñeko La Hormiga Atomica liburudendan erakusketarako prestatutako zenbait irudi erabili zituen abiapuntuzat, baina azkenean ilustrazioak berregitea erabaki zuen. "Orain argitaratzen diren irudi guztiak berriak dira", zehazten du. Castillo Suarez idazle altsasuarrek haurrei zuzendutako *Ebelina Mandarin* liburua ilustratu du ere. Ipuin honi Lizardi saria egokitu ziaio eta datorren ostiralean aurkeztuko da Altsasuan, Liburuaren Egunean barnean.



Liburuan agertzen den beste ilustrazio bat.

BUXENS

LEIRE URBELTZ MUNUCE ILUSTRATZAILEA ETA ARTISTA

## "Nire munduko oinarria euskal mitologia da"

Arte Ederretako ikasketak Bilbon burutu ondoren, Leire Urbeltzek Bartzelonan jaso zuen ilustrazioko espezializazioa. *Itzalpetik* liburuan landutako 12 marrazkietan estilo "personala eta fantastikoa" erakusten du. "Nire munduko oinarria euskal mitologia da. Hain zuzen, gure jatorri mitologikoaren berrikuspena, gaur egungo biziaren abiadarekin kontrastea. Nire irudietan naturaren eta kulturaren arteko oreka aztertzen dut", dio. Beste aldetik, zientzia-fikzioari egindako keinuak nabaritzen dira. Leire Ur-

beltek 24 urte ditu eta Nafarroako Artista Gazteen Topaketetan parte hartu du. "Oraindik esperimentazioaren bidean nago, baita ere arte plastikoen eremuan". Hori dela eta, gustatuko litzaioke Bilbora bueltatzea, Ikerkuntza Artistikoko master bat egiteko asmoarekin.

## 'ITZALPETIK'

Egilea: Yolanda Arrieta  
Ilustratzailea: Leire Urbeltz  
Argitaletxea: Erein  
Ale kopurua: 1.000  
Prezioa: 17€  
Orriak: 36



agenda

## EUSKARAZKO JARDUERAK

Apirilak 24, larunbata / 24 de abril, sábado  
Haur programazioa euskaraz / Programación infantil en euskera

## KONTZERTUA

## Xurdinen kontzertua

Sointek produkzioak (El concierto de Xurdirin)  
2 eta 10 urte bitarteko haurrei zuzendua / Para público infantil de 2 a 10 años  
Sarrerak 3 euro / Entradas 3 euros  
Mikael Aretoa (Gurutzeko plaza) / Sala Mikael (Plaza de la Cruz)  
Emanaldi bakarra / Sesión única  
12:00

## GARAPEN IRAUNKORRA

Ingurumen Heziketarako Museoa  
Nekazaritza Ekologikoa

Apirilak 19, astelehena

## HITZALDIA

## Producción ecológica en Navarra

Hizlaria: Ángela Sabalza Iriarte, CPAEN-NNPEK Nafarroako Nekazaritza Produktzio Ekologikoaren Kontseiluaren ordezkaria  
19:00

Apirilak 20, asteartea

## HITZALDIA

## Compra ecológica en Navarra

Hizlariak: David Garnabro Dubrot (Landare kontsumitzaile-ekarteak) eta Pepa (Ekodenda Ekia)  
19:00

Apirilak 21, asteazkena

## HITZALDIA

## Cultivo ecológico en pequeños huertos, balcones y terrazas

Hizlaria: Juan Manuel Esparza, Luis Amigó ikastetxeko baratze ekologikoaren arduraduna  
19:00

Apirilak 24, larunbata

## BISITA GIDATUA

Bisitak, Arantza idazlearekin batera  
11:00 - 12:30

Izena doan eman, Ingurumen Heziketarako Museoa (Errotazar k. 2k.9), astelehenean ostiralera (10:00 - 13:00 eta 17:30 - 20:00) eta larunbatetan (10:00 - 13:00), edo besteka, 948 149804 telefonora deituz edo 948 123721 faxera nahiz museoeducacionambiental@pamplona.es helbide elektronikora idatzita

Argibide gehiago: 010 telefonoa • www.pamplona.es

## Kirmen Uribe, Irakurketa Publikoaren gonbidatua

N.A. Iruñea

Iruñeko Biurdana Institutuak antolatzen duen Irakurketa Publikoaren gonbidatua da Kirmen Uribe. 14ra atzeratu da aurten. Kirmen Uribe (Ondarroa, 1970) izango da idazle gonbidatua, XI. edizio honetan. Bere azken eleberririk, *Bilbao-New*

*York-Bilbao*, Espainiako Narratiba Saria jaso du, gaztelaniaz argitaratu da eta ingelesera ere itzuli da. Orain dela 9 urte, *Bitartean heldu eskutik* poema liburua arrakastatsua kaleratu zuen. Aurreko urteotan, Bernardo Atxaga, Unai Elorriaga edo Gabriel Arestiren testuak irakurri dira.



Kirmen Uribe.

ARTXIBOA/EFE

## Nafarroako ondare ez-materiala aurkeztuko dute hitzaldi batean

Datorren asteazkenean, arratsaldeko 20:00etan, Gaizka Aranguren, Labrit Multimedia enpresako kidea, *Nafarroako Ondare ez-materiala* biltzeko egiten ari den lanari buruzko bideo emanaldia eta hitzaldia eskainiko du Zaldiko Maldikon. Hain zuzuen, *Ahozko azken lekotasunak* aztertuko ditu. DN

## Atarrabiako antzerki zikloak 'Prest gaude' obra eskeiniko du

Lakrikun talde amateurrak, 1994. urtean sortutakoa, *Prest gaude* lan berria aurkeztuko du Atarrabiako Gune Eszenikoan, ostiralean 22:00etan. Ikuskizuna trilogia baten bigarren zatia da, *Greban gaude* antzezlanaren ondoren, eta Euskal Antzerki Topaketan XVII. edizioa irabazi zuen. Sarrerak 3 euro balio dute. DN

## Jarraiduraren eta irekiduraren arteko oreka, aztergai

Jon Sarasuak *Jarraiduraz eta irekiduraz, han eta hemen* hitzaldia emango du ostegunean, 19:30ean, Iruñeko Udaren Kultura Alorretako Hitzaldi Aretoran. Kazetaria eta soziologoa, Sarasuak kultura komunitate txikiaren ematen den jarraiduraren eta irekiduraren arteko oreka aztertuko du. DN